

BERRIGARA

ES. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, urtarrilak 31



San Martin Agirre

Martirioaren 4. mendeurrena

Nissan Primera berria.

*Makina perfektua
eskura daukazu Bergaran.*

Blanco

Amillaga, 22. Tl. eta faxa, 76 17 85

NISSAN NISSAN





AMPARO

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Estetika zentruan...

IHAUTERIETAKO
MAKILAJEAK

Drag Queen

Zonbiak

Zahar itxuratzeak

Infantilak

Fantasia

ETA BESTELAKO MAKILAJE
ESPEZIALIZATUAK

Ezkontzetarako

Gazteagotzeko

Argazkitarako

etab.



Prezio merkeak! Anima zaitetz!

Boni Laskurain, 2-4 behea, Tlf.: 76 56 05

San Martin Agirreren heriotzaren
400. urteurrenean Bergarako
herriak aurkezten du

Antolatzailea Laguntzaileak



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru Diputazioa



Euso Jaurlaritza

Antolaketa
laguntzailea



Babaesleak



San Martinen Estampa

Otsein

kutxa fundazioa
fundazioa



TECNOSYSTEM




ULMA

CONSUM



MAURICIO ARREGUI, S. A.



Ortuibar
eraikuntza-enpresa

Tratamientos Térmicos
TTT

BILTOKI

CONSTRUCCIONES
Arizamendi

Eelay

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
ERROTALDE JAUREGIA

Zuzendaria:

Agustina Azkarate

Erredakzioa:

Agustina Mendibil
Agustina Elkoroberezibar

Maketazioa:

Agustina Iturbe

Publizitatea:

Agustina Romero

Argazketa:

Agustina Elortza

Testuen zuzenketak:

Agustina Plazaola

Argazki Laskurain

Agustina Labaien

Erredakzio kontseilua:

Agustina Elortza

Agustina Angel Elkoroberezibar

Agustina Labaien

Argazkiak:

Agustina Rodriguez

Agustina Ortega & Jon Alvarez

Agustina Ugaldé

Agustina Azkarate

Argazkiak:

Agustina Angorri ta'idea

Tirada:

Agustina ale.

Argazketeoria:

Agustina Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Argazki gordailua:

Agustina 50/91

ISSN:

Agustina 030-8599

BERRIGARAK ez du bere gain
argazki aldizkarian adierazitako
argazkiak eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzaren Kultura
sailaren laguntza jaso du

JONE LEGORBURU

Idolaz euskara elkartekoa

- Berrigararekin ba-
tera Antzuolarako ge-
higarri bat egin nahi
duzue...

- Bai, hamabostean
behin Berrigararen argitara-
tuko litzatekeen Antzuo-
lari buruzko lau orriko
gehigarri bat egiteko as-
moa daukagu. Oraindik
ere ez dago guztiz zehaz-
tuta baina Antzuolako
Udalak aldeko jarrera
azaldu du. Hasiera bate-
an, Antzuolako berriak,
agenda moduko bat eta
erreportaia bat joango li-
rateke gehigarri horretan
baina oraindik ez da pro-
posamena onartu eta
guztia aztertzeko bilera
bat egingo dugu martitze-
nean, hilaren 5ean, arra-
tsaldeko Setan Antzuo-
lako liburutegian. Proiektu
honetan interesatutako
guztiak etor daitezke.



- Noiz hasteko as-
moa daukazu?

- Laister izatea espero
dugu. Martitzeneko bile-
ran helburuetako bat
erredakzio kontseilua
osatzea izango da eta
hortik aurrera lanean ha-
siko gara Udalarekin eta
Berrigararekin hitzarme-
nak sinatzeko. Bestalde,
esan behar da Berrigara
Antzuolako etxe danetan
banatuko dela.

**"Berrigarako Antzuolari buruzko gehigarria
aztertzeko bilera egingo dugu asteartean"**

ITURRIONETIK

Sexy-showa San Jose egunerako Jam aretoan

Gabonen atarian Nice boys taldeak Jam aretoan
izandako arrakasta ikusirik, Santalaitzeko aretoko
arduradunek antzerako saio bat ekarriko dute
martxoaren 15ean edo 22an Bergarara. Oraingoan show
mistoa izango da, hau da, neskak eta mutilak biluztuko
dira, eta emakumeek zein gizonezkoek izango dute
sartzeko eskubidea. Joan zen abenduaren 14an 700
emakume izan ziren Nice boys taldearen emanaldian.
Bestalde, martxoaren 19an, San Jose eguna ospatzeko,
Veneno en la piel taldea izango da Jam aretoan eta San
Jose eguna astebarruan tokatzen denez, sexi-show
emanaldia 15ean edo 22an izango da.

"Orain hiruzpalau
urte atzetik partidua
puskatzeko gaitasuna
neukan. Orain,
berriz, gehiago
kostatzen zait, batez
ere material mota
honekin. 28 urtetik
32 urtera bitartean
orain baino hobeto
nengoen. (...)
Garrantzitsuena
postu bakoitzeko
dozena erdi pilotari
onenen artean egotea
da. Baina ez diot
txapelari uko egiten.
Baina tristeagoa da
txapela lortu
ondoren, urtean
zehar izaten diren
zita
garrantzitsuenetarako
deirik ez jasotzea".

**JOSE MARI
ZEZEAGA**

Pilotaria
EL DIARIO VASCO

"Gobernuz kanpoko
erakundeen zeregina
gobernua iristen ez
diren tokietara heltzea
da. Bi aukera daude
herrialde behartsuenei
laguntzak bidaltzeko:
bata gobernuen arteko
komenio bilateralak
eta bestea gobernuen
kanpoko erakundeen
bitarteko ekimen
pribatuak. Azken
hauek fidagarriagoak
eta eraginkorragoak
dira esango nuke".

MIKEL ANDUEZA

Dominikoa
EL DIARIO VASCO

**SLEEPERS**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**2013: RESCATE EN L.A.**

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

**LONE STAR**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Lorenzo Carcaterraren** *best-seller*rean oinarritutako filmea egin du **Barry Levinson** zuzendariak. New Yorken bizi diren lau gaztetxoren bizitza erabat aldatuko da beraiek eragindako istripu baten ondorioz. Kartzelan, biolentzia jasango dute eta handik urte batzutura mendekua hartzeko aukera aurkeztuko zaie. **Robert De Niro, Dustin Hoffman** eta **Brad Pitt**en partaidetzarekin.

▼▼ **John Carpenter**rek zuzendutako filme honetan **Kurt Russell, George Correface** eta **Stacy Keach** dira protagonista nagusiak. Hamasei urte igaro ondoren, Estatu Batuetako presidentek berriz ere *Plissken Sugea* (**Rusell**) deituko du misio arriskutsu baterako, Los Angeles hiritik presidentearen alaba askatzea hain zuzen ere.

▼▼ Kritikaren iritziz, joan zen urteko filmerik onenatarikoa izan genuen *Lone Star*. Estatu Batuak eta Mexikoren arteko muga *Sam Deeds* sheriffa (**Chris Cooper**) *Buddy* (**Mathew McConaughey**) bere semearekin bizi da. *Deedsek* bere ingurukoen errespetoa irabazi du orain urte batzuk izandako gertakizun baten ondorioz baina gertakari hura argitzen joango da...

Deiak

▼ **Matinala.** *Alaska* filmea igande goizean 11:30etan Novedades aretoan.

▼ **Oscar Barrera** margolaria-
ren erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du asteazkenean, otsailaren 5ean, 18:30etan Seminarioan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **Erakusketa.** Seilu eta Diru Bildumazaleen Elkarteak San Martini eskeinitako erakusketa Udaletxean.

▼ **Rock kontzertua Jamen.** Skunk Anansie taldearen rock kontzertua iragarri da zapaturako gaueko 9etarako Jam aretoan. 2.000 pta.

Ogia

▼ **Domeka 2:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 31:** Estella.
- ▼ **Zapatua 1:** Mozos.
- ▼ **Domeka 2:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 3:** Camacho.
- ▼ **Martitzena 4:** Puy.
- ▼ **Eguaztena 5:** Guallar.
- ▼ **Eguena 6:** Estella.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

San Martinen Estanpa

Lau emanaldi gaurtik domekara bitartean

Astelehenean sarre-
rekin izan ziren arazoak
direla eta, San Martinen
Estanpako antolatzaileek
zapatu aratsaldean beste
emanaldi bat antolatzea
erabaki zuten martitzen
goizean. Jakingo duzuen
bezala, sekulako iladak sor-
tu ziren takila aurrean sar-
rerrak eskuratzerako or-
duan eta salgai jarri ziren
lehenengo egunean saldu
ziren guztiak (1.900 sarre-
ra). Antolaketa modua kriti-
katzeko astean zehar Berri-
garara deitu dutenak asko
izan dira.

Arazoari irtenbidea
aurkitu nahian, beste
emanaldi bat antolatuko
da zapatuan arratsaldeko
6:30etan. Aurre estreinal-
dia izango da eta hasieran
iragarrita zegoen moduan
gaueko 10:30etan izango
da estreinaldia. Domeka-
ko emanaldia eta hau-
rrentzako ostiralekoa, ira-
garrita zeuden orduetan
izango dira. Antolatzaile-
ek barkamenak eskatu
nahi izan dizkie, astelehe-
nean takila aurrean or-
duak eta orduak eman zi-
tuztenei.

Beraz, zapatuan, gae-
ko 10:30etan estreinatuko
da San Martinen Estanpa,
San Martin Agirre Nagasa-
kin gurutziltzatu zutela
400 urte betetzen direla
eta, Bergarako Udalak
bultzatu duen muntaia.

Ikuskizuna 1957an es-
treinatu ziren Euskal Es-



Ikuskizunak bi ordu iraungo du eta 400 pertsonatik gora izango da taula gainean.

tanpetarako Miguel Gon-
zalez Bastidak idatzitako
San Martinen Estanpa ize-
neko partituran oinarritu-
ta dago, baina Bergarako
ohituretan errotuta dago-
en musika herrikoitik zati
batzuk hartu dira ikuski-
zuna osatzeko. Alfredo
Gonzalez Chirlaque musi-
ka arduraduna izan da eta
Valen Moñux, berriz, es-
zenarena. Kukuma taldea
atrezzoaz arduratu dela
eta Maite Aristegik euska-
razko testuen egokitzape-
na egin du.

San Martinen Estanpan
400 bergarar inguruk har-
tuko dute parte: 110 musi-

kok, 150 abeslarik eta 140
aktorek. Eszenatokiak
Udal Pilotalekuaren kan-
txa osoa hartuko du. Ins-
trumentu taldeei eta ko-
ruei lagako zaien lekuaz
aparte, bi eszenatoki na-
gusi izango dira. Bestalde,
instrumentu taldeen gai-
nean eszenatoki txiki bat
jarriko da eta bertan Ber-
garako elkarte gastron-
omiko bat errepresentatu-
ko da, gaur egunean San
Martin bezperan egiten di-
ren afarietako batean gi-
rotuta. Bertan sortzen di-
ren elkarrizketak erabiliko
dira ikuskizunaren narra-
zioa egiteko.

Udal Musika Bandak
eta Orkestra Sinfonikoak,
Orfeoia, Aritzetak, Alai
Taldeak, Umore Ona tal-
deak, Udal Txistulari Ban-
dak, Xamatx dantza talde-

ak, Virago eta Oihulari
Klown antzerki taldeak
eta Ariznoa Gimnasia
Erritmiko taldeak hartuko
dute parte ikuskizunean.
Aipamen berezia merezi
dute Mikel Laskurain ak-
toreak eta Eduardo Mu-
ruamendiaraz dantzariak.
Azken honek koreografia
berezia prestatu du.

Liburua sartzera- koan banatuko da

Miguel Angel Elkor-
berezibarrek idatzitako 80
orrialdeko liburua, "San
Martin: Gurutzebidea eta
bidegurutzea (1597-1997)"
izenekoa doan banatuko
da frontoira sartzera-
koan. Antolatzaileek esku-
te, ikuskizuna hasi baino
ordu laurden lehenago
ikusleak bere aukietan ese-
rita egon daitezela.

**Ikuskizuna hasi baino ordu
laurden lehenago aukietan
eserita egotea komeni da**

Eskerrik asko

Urte honetan gure etxeko hutsuneak gure seme alaben presentziaz beteta ikusteko itxaropenarekin, Senideak taldeak eskertu nahi du pasa den 1996. urtean, dendariek, partikularrek eta beste hainbatek erakutsi duten sentikortasuna, bai preso eta baita euren familiarrekiko.

BERGARAKO SENIDEAK

Atzo ez, gaur ere ez, bihar?

Urtarrilaren 7a: Bergarako Aurrezki Kutxako bulego batera joan, eta elkarrizketa guztia euskaraz egin ondoren, agiria gaztelaz idatzita eman zidaten.

Urtarrilaren 8a: Bergarako denda batera joan ginen; guk euskaraz egin arren, dendariak erdaraz erantzuten zigun bera ere euskaldun izanik.

Urtarrilaren 9a: Lur Hiztegi Enziklopedikoa etxez etxe saltzen dabilen gizonezko bat etorri zen liburuak eskaintzera. Nahiz eta nik euskaraz jardun, berak gaztelaz erantzuten zidan behin eta berriz; bada-kizue kontua, interesgarria ei da haurrek euskara ikas dezaten, eskolako lanak egiteko ere lagungarria izan daiteke, euskaraz materiale gutxi omen dago, euskal familiek ez badute erosten... tirada murriztak egin behar direla, e.a.

Urtarrilaren 10...

Horrelakoak sarri gertatzen zaizkigu. Zer da? Behar bada izan daiteke "errespetu

falta", "axolagabekeria", "adar-jotzea", "kontzientzia falta", "zurikeria", "mesprezua"...

Norbaitek esan dezake: betiko leloa; A ze exajeratua, ez da horrenbestearino! Eta nik diot: non dago euskara bizia nahi dugunon eskubidea? Non dago euskara erabili nahi dugunondako errespetua? Euskara umeendako bakarrik bada, haur horiek hazi egiten direnez, alperrik ari gara. Norbaitek esango du, ikasitakoa hor izango dute. Nik, ordea, galdetzen diot neure buruari: zertarako?

Goiko izenburuari bakoitzak erantzun diezaioala.

J.A.

Jazoera lotsagarria

Azken aste hauek ilusioz beterik bizi izan ditut, nire etxeko eta koadrilako zenbait lagunek San Martinen estanpan parte hartu behar zutelako eta, ikusi ere norbaitek egin behar duela eta, egun batean behintzat ikusle bezala joango naiz eta bestean edozertan laguntzeko prest nago.

Astelehenean sarrerak hartu eta kitto! bai ederki! Eta kitto esan dut? Pilotatokiaren aurrean astelehen arratsaldeko jazoera lotsagarri hark ez du izenik: lehiatila bakar bat zabalik eta ehundaka pertsona ikaragarriko gizabide eta pazientzia agertuz, lau, bost, sei ordu hotz eta luzetan bi mila pezetako sarrerak hartzeko zain.

Harrotasunez esan dezaket edozein gertaeraren aurrean Bergarak antolaketa

maila ezinhobea erakutsi duela orain arte, astelehenera arte hain zuzen ere. Barkatuko didazue, baina sarreraren antolaketa parte hartu duzuen Musika Eskolako kideok suspenso -zero- haundi bat merezi duzue; "zezenak harrapatu gaitu" esateak ez du balio aurretik ikasi behar da toreatzen, eta horrelakoak ekiditzeko aurrez aztertu beharreko mila irtenbide daude.

Bestalde, seguru nago estampa honek bergarar garelako, beti bezala, harro sentitu araziko digula; badakit, txikitatik ezagutu eta maitatzen ikasi dugun gure San Martinek, bergarar, antzezleri eta musikari haur, gazte eta helduen hainbeste ahalegin, lanordu eta ilusioei esker, ikuskizunaz gozatzeko aukera ederra eskeiniko digula; zuentzat bihotz bihotzez alde aurretiko zorion eta eskerrik beroenak.

ARANTZAZU NARBAIZA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



San Blas jaiak Murinondon

Astelehenean San Blas eguna dela eta, jai ekitaldiak antolatu dira Murinondo auzoan. Goizeko 11etarako meza nagusia eta opilen bedeinkapena iragarri dira eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dira. Eguastenean, Santa Ageda egunean, San Blas ermitako ermandadearen kideen bilkura egingo da.

Bedelkarren zozketa

Bedelkarrek Gabonetan antolatutako zozketako laugarren sariari zegokion txartelaren jabea (137.001 zenbakia) ez da agertu, eta epea amaituta dagoenez, 100.000 pezetak etorkizunen hainbat jarduera antolatzeko erabiliko ditu Bedelkarrek.

Saharar Herriari atun latak bialtzeko kanpaina martxan

Saharar Herriari atun latak bialtzeko kanpaina jarri da martxan. Kanpaina otsailaren 10ean amaituko da eta helburua Tinduf-en (Algeria) erbesteratuta dagoen Saharar Herriaren populazioaren zatirik haundienari, laguntza ematea da. Gaur egun 200.000 saharar inguru bizi dira Algeriako errefuxiatu kanpoetan.

250-300 gramotako atun latak eskatzen dira eta Bergarako Udaletzeko udaltzainen bulegora eraman daitezke. Biltzen diren atun latak horiek eta beste produktu batzuk, otsail amaieran antolatu den Euskal Karabanak eramango dizkie sahararrei. Helburua Euskadi mailan 50 tona atun bil-



Hirugarren munduari buruzko erakusketa zabalik dago domekara arte Kultur Etxean.

azkenengo karabana eta orduan atun latak betetako 3 trailer bidali ziren Euskal Herrietik.

Garapena eta ingurugioa

Bestalde, garapena eta ingurugiroari buruzko erakusketa zabalik dago datorren domekara arte Kultur Etxe-

tzea da. Saharar Herriari laguntzeko Euskal Karabanak 1990. urtean hasi ziren antolatzen eta hurrez gero, hainbat produktuz betetako kamioiak bidali dira. 1995ko abenduan antolatu zen

an. Bertan, hirugarren munduan bizi duten egoerari buruzko hainbat argazki eta panel daude ikusgai. Erakusketa Mugen Gainetik Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du.

HILDAKOAK

- Eusebia Guridi**
Urtarrilak 23, 83 urte.
- Isabel Arrieta-Araunabena Aldape**
Urtarrilak 24, 73 urte.
- Antonio Alberdi Iriondo**
Urtarrilak 25, 74 urte.

JAIOTAKOAK

- Olatz Basterra Fernandez de Jauregi**
Urtarrilak 20.
- Andoni Mujika Arrizabalaga**
Urtarrilak 22.
- Jokin Alfaro Ugarteburu**
Urtarrilak 24.
- Andres Gallastegi Beroiz**
Urtarrilak 26.



Autopistari buruz berbetan

Eibar-Etxarri autopistari buruzko bi mahainguru iragarrita zeuden aste honetarako Kultur Etxean. Eguastenean, Eusebio Villar, Leintz-Gatzaga/Landako proposamenaren aldekoen izenean, autopistaren kontra eta errepidean hobekuntza sakonak egitearen alde azaldu zen. Mahaingururako Debasako ordezkariak gonbidatuta zeuden, baina ez zen inor azaldu. Bestalde, egunean, EAJ, HB eta EAko ordezkariekin beste mahainguru bat izatekoa zen. Otsailaren 14tik 23ra bitartean, berriz, Kultur Etxean autopistaren gaiari buruzko panelak eta bideoa izango dira ikusgai, Leintz-Gatzaga/Landako proposamenaren aldeko batzordeak antolatuta.

Gracian
Gracian

usaindegia, mertzeria eta...

ihauterietarako

osagarriak!

Bidekurutzeta, 6 Tfnoa: 76 10 25

Herri aldizkariak eta euskal prentsa

Euskal prentsak Jaurlaritzatik nahikoa diru jasotzen ez duela eta azken urtean dirulaguntzek behera egin dutela salatu dute, agiri baten bitartez, Euskal Herriko 45 aldizkarik, tartean Berrigara delarik. Agiria, 28 herri aldizkarik, informazio orokorreko bik, 14 aldizkari espezializatuk eta Egunkariak sinatu dute. Berrigarak 2.400.000 pezeta jaso zituen 1995ean Jaurlaritzatik. 1996rako, berriz, 1.880.000 pezeta emango direla agindu dute, baina Berrigarak oraindik ez du dirurik jaso.

Santa Ageda eskean

Datorren martitzenean Santa Ageda bezpera dela eta, hainbat talde irtengo dira kalera Santa Ageda eskean. Aritzeta, Udal Euskaltegia, AEK eta Jardunekoak arratsaldeko 6:30etan irtengo dira Gartzela Zaharretik. Baserritar jantzita eta soinu-jole eta guzti, Santa Agedako koplak kantatuko dituzte. Mariaren Lagundia ikastolako haurrak ere aterako dira eta jasotzen duten dirua Peruko haurrei bidaliko zaie.

Senideak-en enkartelada zapatuan

Iñaki Arenaza eta Mikel Askasibar bergarar presoak joan zen ostiraletik gose greban daudela eta, "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean, enkartelada antolatu du Senideak-ek zapatu honetarako. Enkartelada gaueko 21:45etarako iragarri da Fraiskozuri plazan eta herritar guztiei bertan parte hartzeko gonbitea luzatu die Senideak-ek.



Lan orduen murrizketa da langileen eskarietako bat.

Metaleko Bergarako langile gehienek egin dute huelga

Manifestazioa egin zuten martitzenean

Metal adarreko ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek asteartean Gipuzkoa osorako konbokatutako 24 orduko huelgak erabateko erantzuna izan zuen Bergaran. Bergarako metal adarreko langileen %92ak egin zuen huelga; Deba Garaian, berriz, %98a ez zen joan lanera. Metal saileko 3.200 langile inguru dira Bergaran (53 lantegi).

Huelga egunean ez zen inolako istilurik gertatu. Goizeko 8etan pikete informatiboak antolatu zituzten langileek eta eguerdiko 12etan manifestazioa izan zen herriko kaleetan zehar. Huelga egunari buruz, oso balorazio positiboa egin dute sindikatuek.

Sindikatuak eta ADEGI Gipuzkoako enpresarien elkarte metal

adarreko konbenioa negoziatzeari dira, baina ez da adostasunik lortu eta negoziazioak etenda daude une honetan. Lan orduen kopuruaren murrizketak negoziatzerako orduan sortu dira ezadostasun nagusiak; langileek 1997an 11 ordu gutxiago lan egitea eskatzen dute eta enpresariak ez daude horren alde. Lan merkatuaren malgutasuna da mahai gainean dagoen beste puntuetako bat.

Astearteko huelgarako deia Gipuzkoarako zabaldu bazen ere, gaurko Bizkaia eta Araban konbokatuta da. Arazoari irtenbiderik aurkitzen ez bazaio, sindikatuek otsailaren 13 eta 14an Euskal Autonomo Elkarte osoan huelga egunak konbokatzeko asmoa azaldu dute.

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

ezpeleta

ostalaritza-ehunak

OSTALARITZA ETA EGOITZETARAKO AMAHAIA-ZAPU
ETA INDUSTRI-EHUNAK
SAN LORENZO, 1 TL. 76 17 09

Retegik inauguratu zuen Fagor eta Vaillanten lantegi berria

Gas berogailuen sektorean munduko liderra izango da

Jabier Retegi Industria sailburuak inauguratu zuen asteartean San Juan auzoan kokatu den gas bidezko berogailuak egingo dituen Geysler Gastech S.A. enpresa berria. Vaillant alemaniarrek eta Fagor Elektragailuak enpresak %50nako partizipazioarekin sortu duten enpresa berria 35 lagun ari dira gaur egun lanean, baina ekainerako 100 lagunek osatuko dute plantilla.

Datorren urterako, berriz, 400 langile arituko dira eta 800.000 berogailu produzituko dituzte urtean. %35a kanpora esportatuko da eta gainontzekoa Estatu Espainolean salduko da. Geysler Gastech S.A., gas bidezko berogailuen fabrikazioan lehenengoa izango da mundu mailan eta datorren urtean 11.000

milioi pezeta fakturatzea aurrirakusten da.

Astearteko inaugurazio ekitaldian, Jabier Retegi Industria sailburuarekin batera, Roman Sudupe Diputatu Nagusia eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren besteak beste. Horiekin batera, Vaillant eta Fagorreko buruak. Guztiak bat etorri ziren etorkizunean alemanen eta euskaldunen arteko elkarlanak fruitu emankorrek ematea espero dutela adierazteko orduan.

Bestalde, Txinan termo elektrikoak egiteko planta bat eta Indonesiar frigorifikoak egiteko beste bat jartzeko aukerak aztertzen dihardutela aurreratu zuten Jesus Cataniak, Mondragon Corporacion Cooperativako buruetako batek.

Korrika 10

Martxoaren 14an Arantzazun hasiko den Korrika 10 dela eta, Korrika Batzordea eratu nahi du Bergarako AEK Akulu Euskaltegiak. Korrika egun berean pasatuko da Bergaratik. Batzordean parte hartu nahi dutenei dei egiten zaie astelehenean 19:00etan Kultur Etxean egingo den bilerara azaldu daitezten. Bestalde, Korrika Kulturalari hasiera emateko "Sagardotegian euskaraz" jaia antolatuko du AEKk otsailaren 22an Astigarrako sagardotegi batean. Euskal produktuen azoka, hankapaluak, trikitixa eta Gozategi taldearekin erromeria izango dira. Autobusa antolatuko da eta izena-emateko 76 06 18 telefonora deitu behar da otsailaren 14a baino lehen.

Aratuzteak jubilatuetan eta Elosun

Karnabal zapaturako Aratuzte afaria antolatu da Elosuko Ixaun tabernan. Afaria gaueko 9etarako iragarri da eta afalostean dantzaldia izango da Kintanillak alaituta. Txartelak datorren asteazkena baino lehen eskuratu behar dira Ixaun tabernan bertan. Prezioa: 2.700 pezeta. Bestalde, jubilatuen egoitzan ere jaia izango da karnabal martitzenean. Bazkari eta dantzaldirako txartelak salgai daude dagoeneko jubilatuetan 2.000 pezetaren truke.

Ziklismo lizentziak

Aurtengo denboraldirako txirindularitza lizentziak berriztu edo berriak atera nahi dituztenak, ostegunetan iluntzeko 8etatik 9etara Lokatzak San Martin plazan dituen lokaletik pasa daitezke.



Retegik eta Vaillanteko gerenteak, Johannsen-Roth jaunak, inauguratu zuten lantegi berria.

ONGI-ETORRI



JATETXEA & TABERNA

Berezitasunak: haragi eta arraina txingarretan
Bustinzuri, 6 Antzuola Tl. 76 63 49

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

Elikadura

Produktu naturalak

- Zeintzu dira produktu naturalak?

- Normala da gaur egun edozein denda edo merkatutan produktu "natural", "biologiko" edo eta "organikoak" aurkitzea. Beraiei buruz zera esaten digute: ez dutela sustantzia kimikorik, pestizidarik gabe hazi diren produktuak direla, ongari naturalak (satsa) erabili direla..., eta hori bai, merkatuko beste produktu guztiak baino hobekia direla eta, horregatik, garestiagoak noski. Gehiegizko propietate onak ematen zaizkie.

- Pestizidarik gabe hazitako produktu baten nolako abantailak ditu?

- Sustantzi kimikoen hondakin gutxiago izango ditu, baina ezberdintasuna ez da nabaria fruitak urez garbitzen baitira saldu aurretik, legeak markatzen duenaren arabera. Gainera, gaur egun pestizida kimikoak ezezik badaude beste tratamendu batzuek fruituen eta kontsumitzaileen osasuna babesteko. Aldiz, produktu "natural" askok plazez

kutsatuta egoteko arriskua daukate.

- Bestelako abantailak ere leporatzen zaizkie...

- Handiagoak, ederragoak, kolore biziagoak..., etab. dituztela esaten da, eta hau egia edo gezurra da konparatzen den fruitaren arabera. Gaur egun manipulazio genetikoak dela medio praktikoki nahi den fruita lor daiteke, ezaugarri bat edo de-



BITTOR RODRIGUEZ
(Dietista)

nak hobetuz, kontsumitzailearentzat inolako arriskurik gabe, nahiz eta ingenieria genetikoak fama txarra izan. Noski, beti egongo dira kalitate kaxkarreko fruitak merkatuan eta gehienetan fruita horiekin konparatzen dira produktu "naturalak"; baina nutrizio al-

detik, kanpoko itxurari, saporeari eta osasunari dagokionez, produktu "naturalak" baino askoz hobekia diren produktuak dira gehienak; bilatzen jakin behar da, besterik ez. Bestalde, beste produktuak baino bitamina gehiago dituztela esaten digute saltzaileek, eta zientifikoki probatua dago fruituen bitamina kantitatea jeitsi egiten dela plagekin edo eta intsektuengatik jotako fruitetan; eta nork esaten digu babesik gabeko fruita horietara ez dela intsekturik hurbildu?

- Aditibo eta kontserbanteek nolako garrantzia daukate?

- Badaude merkatuan aditibo "gehiegizko" duten produktuak (prozesatutakoak), baina gehienak beharrezkoak direnak eramaten dituzte, eta kalitatezkoak badira, legeak behartzen dituen aditiboak daramatzate bakarrik, hauek gabe, produktuak berehala galdu, usteldu edo hondatuko lirateke. Merkatuak iraupen luzeko produktu asko eskatzen ditu, horrela udako produkzioa neurguan ere dasta dezakegu. Produktu naturalak, nire iritziz, moda bat dira, ez dira txarrak, baina bai nolabaiteko fraudea. Legea ere gogor sartzen ari da produktu hauen aurka, duten garrantzia baino gehiago ez emateko.

"Nire ustez gehiegizko propietate onak ematen zaizkie produktu naturalei"



Gaur egun edozein merkatutan produktu naturalak aurki daitezke.

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 **BERGARA**
☎ 79 91 82 **ARRASATE**


San Martin Agirre

Hil zutela 400 urte beteko dira eguastenean

Eguastenean, otsailaren 5ean, San Martin Agirreraren martirioaren 400 urte beteko dira, 400 urte anai Martin, beste 25 martirirekin batera, Nagasakiko Nishizaka mendiskan gurutziltzatu zutenetik. Toyotomi Hideyoshi Japoneko enperadoreak kristautasuna zabaltzeagatik heriotz zigorra ezarri zien misiolariei eta Japoneko hainbat kristauri.

Urbano VIII. Aita Santuak, 1627ko urtarrilaren 14an, anai Martin eta beste martiriak beatifikatu zituenetik San Martinen jatorriak zeresan ugari eman du. Beasain eta Bergara izan dira Santuaren aitatasuna aldarrikatu izan dutenak eta, ondorioz, San Martinek bi herrien arteko lehia piztu du mende honetan zehar.

San Martin bergarra eta deituraz Agirre zela defenditu izan dutenak San Martin ezagutzeko aukera izan zutenen testigantzetan oinarritu dira.



MIGUEL ANGEL ELKORREZIBAR

San Martin eta beste 25 martiriak gurutziltzatu zituzten toki berean, Nagasakiko Nishizaka mendian, dago martirien omenezko museoa.

Horrela, Marcelo de Ribadeneira martirioaren lekukoa eta Espainiatik Filipinetarako bidaiaria San Martinekin egin zuena; anai Juan Pobre de Zamora, martirioaren lekukoa baita eta anai Martinen akolitoa izandakoa; Francisco de Montilla, Manilako San Francisco komentuan San Martinekin batera irakasle aritu zena; Antonio Morga doktorea, San Martinen lagun mina edo Andres Zuazola, San Felipe galeoiko eskribaua horren alde azaldu dira euren idatzietan, San Martin bergarra eta Agirre zela esanaz.

Bi bataio agiri

Bergarak eta Beasainek Igokundeko San Martinena omen den bataio agiri bana aurkeztu dute. Bergarakoa, 1567ko irailaren 11n Bergarako San Pedro elizan bataiatu zuten Pedro de Agirre eta Myna de Arieexolaren semearena da. Beasaingoa, berriz, 1566ko uztailaren 16an Andre Mariaren Zeruratzearen elizan bataia-

BERGARA
Karrozeriak
 Txapa - Pintura
 Zubieta, 46 **BERGARA**
 ☎ 76 12 31

Irizar, 2
 ☎ 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Aldoka
Maldoka
TABERNA
 Kruz Gallastegi **BERGARA**



Argazkian, Simon Arrietak San Martinen martirioari buruz Udaletxeko sarreran egindako murala.

tutako Jn Garcia Loias eta Mari Myn de Amunabarroren semearena. Baina nor zen Nagasakin gurutztillatu zutena? Hori da 400 urte hauetan argitu ezin izan den misterioa.

Jaioterria ez bada, San Martinek gurutzeraino egin zuen ibilbidea nahiko ondo ezagutzen da martirioari buruz argitaratutako bibliografiari esker, tartean Miguel Angel Elkoroberezibarrek idatzi berri duen "San Martin: Gurutzebidea eta bideturutzea (1597-1997)" liburua. Liburu honetaz baliatu gara San Martinen bizitzaren nondik norakoak azaltzeko.

Mexikon, Filipinetan eta Japonen

Anai Martinek 1583tik 1585era bitartean Alcalá de Henareseko Unibertsitatean Arteak (gaur egungo Filosofia) eta Teologia ikasketak burutu zituen eta bertan frantziskotarra izateko bokazioa azaldu zuen. 1586an abitua jantzi eta Igokundeko Anai Martin hartu zuen erlijio izentzat, 1592an apaiz ordenatu eta bere lehen

meza eman zuelarik. Pedro Ortiz, Filipinak, Txina eta Japoneko misioetako komisariak urrutiko herrialde horietan kristautasuna zabaltzeko predikariak behar zituen eta anai Martin, 1592ko maiatzean, Sanlúcar de Barramedatik abiatu zen Mexikora Juan de Oribe jeneralaren itsasuntzian. Bidean ekaitz bat jasan zuten eta noraezean ibili ondoren berriz ere hasierako abiapuntura itzuli zi-

ren. 1593ko urtarrilean Cadizeko portutik atera eta berriz ere anai Martin Amerika aldera. Mexikora heldu bezain laister Arteetako irakasle izendatu zuten, baina berehala Filipinetara joateko agindua eman zioten eta 1594ko urte hasieran irten zen Acapulcotik Manila aldera. Han ere Teologia eta Arteetako irakasle izendatu zuten, baina denbora gutxi eman zuen anai Martinek Filipinetan. Anai Pedro Bautista Japoniako komisari eta enbaxadoreak eskatuta, 1596an Japonera joan behar izan zuen anai Martin Francisco Blanco bere lagun minarekin batera. Usacan beharrezkoa zen eliza bat eraikitzearen ardura hartu zuen anai Martinek. Frantziskotarrak eta jesuitak ziren orduan Japonen eta bi kongregazioen arteko lehia nabaria zen: jesuitak Portugaleko ordezkariak ziren eta frantziskotarrak, berriz, Gaztela ordezkatzeko zuten.

Japonen 25 milioi biztanle zituen orduan (Espainiak 8 milioi zeuzkan) eta japoniar gehienak budistak eta sintoistak ziren. Anai Martinek Francisco de Montillari idatzitako gutun batean gogor kritikatu du beren sinesme-

Japoniar gehienak budistak eta sintoistak ziren eta anai Martinek, Francisco de Montillari idatzitako gutun batean, beren sinesmena kritikatu zuten

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

EMILIO PERNAUT
doktorea

traumatologia eta zirurgia ortopedikoa
Kontsulta: PAKEA. Amillaga, 8 Bergara ☎ 76 13 49

EGUNA ETA ORDUA ESKATU BEHAR DIRA.

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarrak

Urarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

na: "(...) *la gente es tanta, que hierven como hormigas, y en la ciudad de Meaco tiene el demonio diez y ocho mil Bonzos o sacerdotes de dos mil templos, donde es adorado...*".

Kristautasunari beldurra

Kristautasunaren dotrinak arriskutsuak ziren enperadorearen aginte la-saiarentzako. Kristautasuna japoniar gizartearen aurkakoa eta politikoki subertsiboa zela ikusten zuen enperadoreak. 1596ko abenduaren 8an Meaco eta Usakako komentuak inguratu zituzten soldaduek eta anai Martin atxilotu zuten. Hasieran, belarriak eta sudurra moztuko zizkiela uste zuten misiolariak, beste gaizkileei gertatzen zitzaizen moduan. Ezkerreko belarri zati bat moztea erabaki zuen enperadoreak eta herri guztia horren lekuko izan zen. Baina Sakay herrian ezagutu zuten martiriek azken epaia: "*Kristauen legea predikatzearren, 24 hauek Nagasakin gurutziltzatuak izango dira eta norbait agindu hau ez betetzen ausartuko balitz, familia osoarekin batera zigortuko dut*".

Martiriek 800 kilometro egin behar izan zituzten oinez eta kristauak negarrez hurbiltzen zitzaizkien ibilbidean ze-

har. Nagasakiko Gobernadorea Koreako gerran zegoenez, Terezawa Hazaburok hartu zuen agintea eta hasieran Pedro Bautistari bi eskakizun onartu zizkion, Jesukristo bezala ostiral batean gurutziltzatzea bata eta Nagasakira heldutakoan meza entzun eta jaunartzea egin ahal izatea bestea. Baina Terezawak otsailaren 4an Somokoki portura heltzean meza eta jaunartzea debekatu zituen. Otsailaren 5ean 4.000 lagun inguru hurbildu ziren Nishizaka mendiskara gurutziltzaketa ikusteko, tartean jesuitak, frantziskotarrak, itsasgizon espainiar eta portugaldarrak eta Macaoko merkatariak. Nagasakin 205.000 kristau bizi ziren orduan,

gaur egun 7.000 direlarik.

Otsailaren 5ean, goizeko 10etan, hogeitasei martiriak lerroan zeuden, anai Martin erdian.

Anai Martinek sermoi bat eman zien bere lagunei, heriotzarako prestatuz eta animatuz: "*Aunque vinieramos nosotros aqui arrastrando desde el Meaco hasta aqui y sufriendo grandes tormentos, nosotros no pudieramos con todo eso pagar a Dios nuestro Señor tan gran merced, como esta que nos hace. Nosotros pensabamos morir otra muerte mas baja; mas, ¿que milagro es este tan grande de ser nosotros crucificados?*".

Terezawak bere abanikoarekin gurutzeak zutik jartzeko ordena eman

zuen eta martiriak kantuan hasi ziren. Bederatzi hilabetez egon ziren gorpuak gurutzetan. Beren errautsak Japoneko itsaso urrunean zabaldu ziren. 1862an Pio IX. Aita Santuak Nagasakiko 26 martiriak kanonizatu zituen.

Monumentua

Japonen, 1865ean, martirien omenezko Oura eliza zabaldu zen eta 1962ko ekainaren 10ean Funakoshi eskulturgileak brontzez eta granitoz egindako monumentua inauguratu zen Nishizaka mendian, monumentuaren atzealdean martiriei eskeinitako museoa dagoela. 26 martirien irudiak gurutzean egon ziren moduan daude, anai Martin erdian.

Ospakizunak Beasainen, Nagasakin eta Bergaran

Nagasakiko martirioaren 4. mendeurrenaren inguruko ospakizunak izango dira, besteak beste, Beasainen, Bergaran eta Nagasakin. Japonen, Nagasakin, ekitaldi ugari prestatu dituzte. Pasa den abenduaren 8an (misiolariak atxilotu zituzteneko laugarren mendeurrenean) lau mila pertsonatik gora izan ziren Nishizakako mendixkan martirien omenez emandako mezan eta, era berean, aurtengo udazkenera arte martirioaren inguruko programazio zabala osatu da. Beasainen, berriz, joan zen zapatuko Euskadiko Orkestaren kontzertuak Loinatz-97 elkarteak prestatutako programari hasiera eman zion. Era berean, ikasleen artean banatuko den San Martinen bizitzari buruzko komikia kaleratuko da gaur eta Martin Mendizabal fraile frantziskotarra idazten ari den liburua, berriz, udaberrian argitaratuko da. Martitzenean San Martinek bizi izan zuen garaia azalduko duen erakusketa zabalduko da Usurbe aretoan eta urte amaierara arte San Martinen omenezko kontzertuak, kirol jarduerak etabar iragarri dira. Bergaran, astebukaera honetako ikuskizunean, Miguel Angel Elkorberezibarrek idatzitako liburua banatuko da eta Kultur Etxean Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleek San Martini eskeinitako erakusketa ikus daiteke.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

Siaska

Dena zure Inburrugentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Miguel Angel Elkoroberezibar

San Martini buruzko liburuaren egilea

San Martin Agirreren heriotzaren 4. mendeurrena dela eta, "San Martin: Gurutzebidea eta bidegurutzea (1557-1957)" izeneko liburua idatzi du Miguel Angel Elkoroberezibarrek. Liburuari buruzko zenbait azalpen eman digu egileak.

- Nola animatu zinen liburua idaztera?

- Urriari Japonera joateko aukera izan nuen. Ordurako entzuna neukan San Martinen heriotzaren 4. mendeurrenako zenbait ekitaldi antolatzen ari zela herrian talde bat; Valen Moñuxekin harremanetan jarri nintzen eta hainbat informazio biltzeko enkargua eman zidan, ikuskizunerako baliagarriak izan zitezkeenak: garai hartan jendeak nolako jantziak erabiltzen zituen, Japoneko eraikuntzak nolakoak ziren... Horiek guztiak bildu eta gero, Japonetik bueltan, berriz ere juntatu ginen eta liburua idaztera animatu ninduen.

- Zer kontaktzen duzu liburuan?

- Hasierako asmoa San Martinen bizitza eta heriotza nolakoak izan ziren kontaktzea zen. Nagasakin hainbat argazki atera nituen, Martirien Museoan batez ere, eta dokumento grafiko hura oso baliagarria izan zait liburua ilustratzeko. Baina liburua Bergaran kaleratzen dela kontutan hartuta, jaioterriari buruz ezer ez aipatzea ez litzateke oso zuzena izango. Horregatik, eta beti ere ezer berririk demostratzera ez noala argi eta garbi izanda eta polemikatan sartzeko asmo barik, nongoa zen demostratzeko alde batekoek zein besteok erabili izan dituzten argumentuak kontatu ditut, eta liburuak horrexegatik ditu bi atal nagusi: lehenengoan San Martinen bizitza eta heriotzari buruz jarduten naiz eta bigarrenean jaioterriari buruz.



- Nondik atera duzu informazioa?

- Nagasakiko 26 Martirien Museoko zuzendariak, Diego Yuukik, laguntza haundia eman zidan. Hortik aparte, oinarriko informazioa San Martinen garaikideek idatzitako kroniketarik, Ribadeneiraren liburutik batez ere, bera izan baitzen martirioaren testigu. Bergara eta Beasainen arteko gora-beherei buruzko informazioa jasotzeko, bi herrietan publikatu direnak aztertu ditut.

- San Martinen jaioterriari buruz, zeintzuk dira herri bakoitzean erabili diren argumentuak?

- Beasaindarrek santuaren familia eta unibertsitate garaiko testigantzetan oinarritzen dute bereziki euren defentsa; bestalde, misioetan San Martinen garaikideak izan ziren ia

gehienek esan dute San Martin Agirre zela eta bergararra zela. Badago lbarrangeluakoa zela esan duenik ere.

- Elizak zer dio honi buruz?

- Liburuan jasotzen den moduan, 1862ko ekainaren 6an, Pio IX.ak Kanonizazio Buldan San Martin bergararra zela eta Agirre zuela deituta esan zuen. Ekainaren 8an egin zituzten Anai Martin eta gainontzeko martiriak santu. Baina beasaindarrek, ez ziren erabakiarekin konforme geratu eta Erritoen Kongregazioak, bi aldeetako argumentuak aztertu ondoren, 1867ko apirilaren 13an San Martin beasaindarra zela eta Loynaz zela erabaki zuen, eta gaur egun erabaki horrek indarrean dirau.

- Nagasakin nola bizi dute 4. mendeurren hau?

- Kristautasuna oso minoritarioa da Japonen. 123 milioi biztanle bizi dira eta milioi bat dira kristauak. Hango erlijio nagusiak Budismoa eta Sintoismoa dira. Kristautasuna oso minoritarioa izanik, errespetatzen dute eta Kristautasunaren errietoak oso estimatuak dira japoniarren artean. Esate baterako, kristau erara ezkontzea modan dago, nahiz eta berez kristauak ez izan. Nagasaki da Japonen hiririk garrantzitsuen Kristautasunari dagokionez. 450.000 biztanle ditu eta urte osoan zehar antolatuko dira martirien 4. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak. Hasierako ekitaldian 4.000 lagun bildu ziren.

“San Martinen garaikideak izan ziren ia gehienek esan dute San Martin Agirre zela eta bergararra zela”

Natalio Juaristi

1962ko Mendeurrenaren Batzordeko kide ohia

Natalio Juaristik, 84 urterekin, San Martini buruzko hiru mendeurren ezagutu ditu dagoeneko: 1927an San Martinen beatifikazioaren 3. mendeurrena; 62an kanonizazioaren lehen mendeurrena eta orain ospatzen den martirioren 4.a. Natalio San Martinen jatorri bergarraren defendatzaile sutsua da.

- 62an lehen kanonizazioaren lehen mendeurreneko batzorde bat osatu zenuten...

- Bai, Laskurain orduko alkateak deituta, Don Pepe Larrea San Pedroko apaiza, Jeronimo Etxaniz, Jose Zabala, Jose Antonio Artetxe, Josu Oregi, Simon Arrieta, Juan Larrañaga eta ni neu izan ginen talde hartan. Neu bizi naiz bakarrik, beste danak hil egin dira. Ospakizun haundiak egon ziren orduan eta, irailaren 15ean, Simon Arrietak eta Fernando Azkargortak San Martinen omenez egindako oroitarria inauguratu zen Zurragak mendixkan. 1927an ere ekitaldi inportanteak izan ziren, ni orduan 15 urte nituen eta Santa Marinako tripleen taldean abesten nuen. Besteak beste, Kantauri aldeko frantziskotarren burua zena eta Bonifacio Etxegarai biologo ospetsua etorri ziren. Etxegaraiak ontzat hartu zuen San Martin hemengoa zela eta gu sendo-sendo ibiltzen ginen orduan. Hiru zentenariotara ailegatu naiz eta oraindik ere hor nabil, San Martinen jatorriaren inguruan, Arantzazuko fraileekin borrokan. Arantzazuzalea bai baina egizalea ere banaizela esaten diet. Egia sustartsuak edukiko balituzte erantzungo zidaten...

- Zeintzuk dira zure argumentuak?

- Martin de Loinazek Espainian gauzak egingo zituen eta guk ontzat hartzen ditugu. Jakin badakigu, fray Martin moduan, Sevillan itsasoratu zela Martin de Loinaz baina non lurreratu zen? non desenbarkatu zen? Garai hartan itsasuntziak intxaur azalaren



modukoak ziren, 10etik 6 barku galdu egiten ziren orduan eta Martin de Loinaz ez zen inon azaldu; niretako itsasoan galdu zela. Martin de Agirre eta Martin de Loinaz bi ziren eta biak ere Alcalan ikasi eta urte gutxiren diferentziarekin itsasoratu ziren. Baina Fray Bautista frantziskotarren buruarengana ez zen Loinazik agertu. Aldiz fray Martinekin joandako fraileek idatzitako liburuetan ez dute esaten beraiekin joandakoa Beasain ala Bergarakoa zen baina bai hura fray Martin de Agirre deitzen zela. Beraz nahiko argi dagoela ematen du.

- Eta nondik agertzen da ba, Japonen hildakoa Beasaingoa dela?

- Martin de Loinazen aitak Juan Garcia de Loinaz zuen izena eta Nagasakin San Martinekin gurutziltzatu zuteneko bat San Gonzalo Garcia deitzen zen eta hau Indiako Bazain herrikoa zen, aita portugaldarra eta ama Indiakoa zituelarik. Bi herrien izenak antzerakoak direnez, hortik etor daiteke nahastea baina argi dago

Martin De Loinaz ez zela ezta Mexikora ere iritsi eta Filipinetara eta Nagasakira gutxiago. Nik oraindik ere Santa Marinako maisuari brometan esaten diot hobe litzatekeela San Martin de Loinaz tiburoi bana galtzarpean agertuko balitz irudietan...

- Bergara eta Beasainen arteko auzia ez da sekula amaituko...


- Zerura joaten garenean! Han ikusiko ditugu (barrez).

- San Martinen bizitzatik zer nabarmenduko zenuke?

- Zabaleta baserrian jaiotz zela, eta bere burua eman zuela Jesusen dotrina erakustearren. Hori Martin de Loinaz berari ere errekonozitu behar zaio. Santa Ageda bezperarako Jubilatuetan entsaiatzen ari garen kantuetako bat San Martini eskeinita dago eta azken estrofak honela dio: *"nerekin etorri nahi duanak/uka beza bere burua/artu beza gurutzea/eta gero jarrai bezait/ori da Kristok esana/ori Martinek egiña/ori da zerurako bidea/ori zorientasuna"*.

"Hiru zentenariotara ailegatu naiz eta oraindik ere Arantzazuko fraiiekin borrokan nabil San Martinen jatorriaren inguruan"

Zer dakizu San Martin Agirreri buruz?




Florencio Labaien

Gauza haundirik ez, nire andreak jakingo du baina nik kalean entzuten dena bakarrik: hemengoa dela eta ezer gutxi gehiago.



Karmen Abio

Nik zer jakingo dut ba San Martini buruz? Hemengoa dela esaten dute batzuk, beste batzuk Beasaingoa dela...



Eduardo Berrueta

Ideiarik ere ez. Irailean bere omenezko jaiak ospatzen direlako ezagutzen dut baina hortik aurrera...



Mari Karmen Poza

San Martin de Agirre? Ez dut batere ezagutzen, jaiak izaten direla bakarrik. Bere bizitzari buruz ez dakit ezer ere ez.



Vicente Sanchez

Bergarako patroia dela. Baina eztabaidak daude eta beste batzuk Beasaingoa zela esaten dute. Ez, ez dakit non hil zen.



Visitacion De la Cruz

Jaiak ezagutzen ditut bakarrik. Bergaran jaio zela uste dut baina ez dakit non hil zen, gauza gutxi dakit.

ZUBIETA elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48**

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

*Eguneko menua.
Karta (2.000-3.500 pzta. artean).
Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.*


Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40



Txapela janztera

Bikote txapelketako azken sei finaleratik lautan egon da Joxe Mari Zezeaga. Horrekin dena esanda gelditzen da. Azken urteotan profesional mailan ezagutu den atzelari erregular eta jotzaileenetarikoa dugu. 1993an Jokin Etanizekin batera Federazioen babesetik kanpo -enpresen arteko liskerrak medio zirela- Bergaran irabazitako txapela ez du sekula ahaztuko. Hura ezagutu zuen inork ezin izango dio leporatu txapelketarik irabazi ez izana, nahiz eta palmarez ofizialetan bere izenik ez agertu. Eugirekin batera, hura errepikatzeke aukera dauka igandean.

Uberakoak eraman du bikotearen pisua. Eskutako minagatik edo ez dakit zergatik Eugi bi jardunalditan falta izan zenean, Olaizolaren laguntza ederki aprobetxatu zuen saillkapenean gora egiteko. Joxe Mari ez zuen bururik galdu eta final aurrekotan bere jokurik onena erakutsi du. Berak ere badaki erreztasunak aurkitu dituela azken bi norgehiagoketan, baina inoren laguntzarik ere ez. Horiek beste batzuk jaso dituzte.

Finalean Retegi eta Lasa irtengo dira favorito, baina Zezeagak lasaitasunez jokatu dezake. Zer galdurik ez dauka. Orain bi urte sasoi hobean zegoela badaki, baina esperientziak patxada ekarri dio, Logroñoako Adarragan ederki erakutsi zuenez. Sekula ez du izan txapel gose berezirik eta orain, 34 urterekin, ez zaio derrepentean etorriko. Hori bai, irabazteko aukera baldin badauka ez dio ihes egiten utziko.

Gauza batekin seguru nago. Astelehenean gimnasiara joango den Zezeaga gaurkoaren berdina izango da: egizalea, kritikoa, lagunaren lagun, lotsati xamarra eta kaxkajoa.

Joseba LEZETA



Ekitaldi ofizialak

Askotan ikusi izan ditut telebistan politikoak edozein ekitaldi edo inauguraketan parte hartzen eta hauen betebeharrak edo papera zein den ere galdetu izan diot neure buruari.

Alde batetik, normal ikusten dut hauen partehartzea lan publikoa duten heinean; baina bestetik propaganda kutsua hartzen diet ekitaldi hauei eta ez nuke zehazki jakingo zerk bultzatzen nauen hori pentsatzera: agian lehendakari, ministrari edota alkateen gehiegizko protagonismoa, beraien hiltzaldi aspergarri edota irrifarre faltsuak..., ez dakit.

Baina bada, honen inguruko beste gogoeta edo hausnarketa bat askotan eztabaidatu izan dudana: erregina, lehendakariaren emazte eta abarren agerraldia halako ekitaldietan. Egia esanda, ez nuke esango hauek egiten dutena benetan arduratzen nauenik, baina bai beraien hainbat ekin-tzen ondorioz ematen den irudia.

Adibidez, ospitale, elbarritu edota edozein atzerapen mota duen talderen inguruan egiten diren ekitaldi ofizialetan, askotan (ez beti) ikusi izan ditut emakume hauek eskuetan lore sorta bat eta musuak emanez. Ez dakit kasualitatea ote den, baina badirudi gehienetan hauen betebeharrak pertsona "ahulenganako" sentsibilitate berezia azaltzea dela; bestalde, beraien gizonak autobia, unibertsitate edo parke teknologikoak inauguratzen ikustea normalagoa iruditzen zaigu. Antza, emakumezkoak aproposagoak dira lan sozialetarako eta gizonetzkoak ekonomian garrantzia duten beste arloetara; mezu kontziente edo inkontziente hori ematen dela dirudi behintzat.

Hauek guztiak usteak baino ez dira, eta usteak erdiak us-tel direnez, politikoei edozein atzerapen mota dutenei lagun-tza gehiago ematea baino ez nieke eskatuko..., momentuz.

Jon Ander BENGEOA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokatak eta tapizatuak

Carmen Garate

**Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...**

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

**Fleming Dokorea, 5
☎ 76 19 94**

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

■ Aranzabalen lagunak Logroñon

Aranzabal Lagunarteak beste irteera bat egin zuen domekan Realak eta Logroñesek jokatutako partidua ikusteko. Goizetik, 47 lagun inguru abiatu ziren Logroñora eta bertara joandako beste realzaleekin batera Logroñoko alde zaharreko kaleak alaitu zituzten partiduko ordua iritsi



bitartean. Giro ezinhobea partidu atarian... baina Realak ez zien bere jarraitzaileei poztasunik eman oraingoan, azken minutuan partidua galdu baitzuen. Aranzabalen lagunak burumakur itzuli ziren Errioxatik. Hala ere, ez dute ez animorik galdu eta otsailaren 23an Valladolidera egingo duten irteera iragarri dute. Hori afizioa hori...



■ Zulo bat Agorrosinen

Agorrosingo futbol zelaian zapatuan agertutako zulo baten ondorioz, Bergarako futbol talde nagusiak Ipintzan jokatu behar izan zuen domekan Unibertsitatearen kontrako partidua. Udal teknikariak aste honetan bertan izan dira Agorrosingo futbol zelaian izandako kalteak aztertzen eta badirudi lurrazpian diren igeltsu meatzeetan lurren korrimenturen bat eman dela erreka urak filtratu ondoren. Terrenua tinkotu bitartean futol zelaia zein



atletismo pista itxita egongo dira. Bestalde, esan behar da Bergarako futbol taldea ere zulo batean sartuta dagoela, domekan 1 eta 0 galdu ondoren, Aspiazuren mutilak sailkapeneko azken aurreko tokian baitira 17 punturekin.

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamisetetan, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakak edo dibujak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, garrak, agendak...

AKORT
Publizitatea

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 89



■ Nongoa zen San Martin?

Martitzenean, otsailaren 5ean, San Martinen martirioaren 400. urteurrena betetzen dela eta, **ETBko Bertatik bertara** saiokoek ere santuaren jatorria aldarrikatzen duten Beasain eta Bergara herrien arteko lehia berpiztu nahi izan dute. Joan zen asteazkenean herriko kaleetan izan genituen ETBko kazetariak San Martin nongoa ote zen galdetzeko.

Nola ez, elkarrizketatutako bergararrek bere alde egin eta San Martin erreklamatu zuten kamara aurrean. Amaigabeko auzia San Martinena...

■ Hori ikusmina!

Astebukaera honetan antzestuko den **San Martinen estanpa ikuskizunak** sekulako ikusmina piztu du herritarren artean. Astelehenean bertan agortu ziren bi emanaldietarako salgai jarri ziren 1.900 sarrerak eta ondorioz antolatzaileek zapatu arratsalderako aurre estrainaldia iragarri dute. Era

berean, antolatzaileek barkamenak eskatu dituzte astelehen arratsaldean sarreren salmentan izandako arazoengatik. Arratsaldeko 3retatik ilada luzea sortu zen takila aurrean (takila betan zabaltzen zen) eta **gaueko 11:30etan** oraindik jendea sarrerak erosteko zain zegoen. Arazoak sarrera numeratuak saltzeagatik etorri ziren. Ea hurrengoan sistema hobetzen den...



Zertan dihardute ba?



Axen Garitano 38 urteko bergararra Txakur Leren Pirena probaren bigarren etapapan, Candanchun, erretiratu egin zen abduktoreetan izandako lesio baten ondorioz. Pirena probaren 6. edizioa joan zen zapatuan hasi zen Iruñean eta datorren otsailaren 9an bukatuko da La Molinan, Bartzelonan, partaideek 500 Km. inguru bete ondoren. Axenek 3. aldiz hartu du parte Pirenan: *"fenomeno hasi nintzen. Aurten ondo ibiltzea pentsatzen nuen baina... zer egingo diogu?"*. Momentuz Axenek Pirenan jarraitzeko asmoa dauka.

Angiozar, 37

☎ 76 27 82



IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Luis Gantxegi

Orain dela 14 urtetik Jubilatuetako atezaina dugu Luis Gantxegi osintxuerra (36 urte). Astelehenetik ostiralera, arratsalde, Jubilatuetako sarreran egoten da eta, baserritarra izanik, baserrian ere lan egin behar izaten du.

- **Ianeko gauzarik onena?**
- Jendearekin daukadan tratua.
- **Eta txarrena?**
- Udan ordutegi txarra izatea, lana arratsalde egitea.
- **Lanerako sasoirik onena?**
- Udaberria.
- **Karteta jolasten duzu?**
- Ez, ez naiz kartazalea.
- **Zerbait botatzen duzu faltan Jubilatuetan?**
- Beste kontserje bat, bestea jubilatutik egin da eta.
- **Umore onekoa zara?**
- Nik uste dut baietz...
- **Eta jubilatua?**
- Hona datozenak bai behintzat.
- **Noiztik daukazu bibotea?**
- Soldadutza egin nuenetik, 80tik.
- **Zergatik kenduko zenuke?**
- Andraz disfrazatzeko kendu nuen...
- **Erretzailea zara?**
- Bai.
- **Zenbat zigarro egunean?**
- Dozena bat.



“Jendearekin daukadan tratua da nire lanbideko gauzarik onena, baserriko lanik atseginena animaliak gobernatzea da eta hil baino lehen Kanada eta Tanzaniara joan nahi nuke”

- **Purorik?**
- Astebukaeretan, afalostean.
- **Zure bertute eta defektu bat?**
- Bertutea besteei galdetzea hobe eta defektua jenio txarra beharbada.
- **Hobby bat?**
- Irakurtzea.
- **Liburu bat?**
- Los pilares de la tierra (Ken Follet).
- **Kirolrik egiten duzu?**
- Ez.
- **Eta ikusi?**
- Motor karrerak, saskibaloia...
- **Zer dakizu San Martini buruz?**
- Japon aldean hil zutela.
- **San Martinen estanpa ikustera joango zara?**
- Ez.
- **Baserriko lanik atseginena eta txarrena?**
- Atseginena animaliak gobernatzea eta txarrena sasiak ebakitzea.
- **Animalia bat?**
- Tigrea.
- **Zenbat ordu egiten duzu lo?**
- 7 1/2-8 ordu.
- **Egunkarian zein da irakurtzen duzun lehen gauza?**
- Aurrealdea.
- **Zer da emakume batengan gehien apreziatzen duzuna?**
- Sinpatika izatea.
- **Karnabaletan zertaz disfrazatuko zara?**
- Oraindik ez dakit.
- **Egin ez duzun eta egitea nahiko zenukeen gauza bat.**
- Kanadara eta Tanzaniara joatea. Hil baino lehen egin behar dut hori.

J.M. IZAGIRRE

Igeltseritza

Era guztietako igeltseritza lanak

Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta.

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Loditasun orokorra eta lokalizatua

Zelulitisa • Aknea

Tinkotasun eza • Zimurrak • Etab.

Baita Masaje Terapeutikoa eta Drenaje Linfatikoa ere.

Isabel Benito eta Aitziber Payrosen kontsulta:

Bidekurutzeta, 46 behea

Txanda hartzeko deitu 11:00etatik 16:00etara 76 52 62 telefonora.

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Burdiñaten. 2,6 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokairuan hartuko genuke Donostian. ☎ 79 08 92 (Maidar).

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 34 36.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Pisua salgai Barrenkalean. ☎ 76 41 38.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Garajea salgai Santa Marinar. ☎ 76 18 95.

Pisu amueblatua salgai Mugertza kalean, 3. zenbakian. ☎ 76 53 79.

Pisua salgai San Pedro kalean, lehen pisuan. Bulegorako egokia. ☎ 76 21 58.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizaiden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Arkaian, Araban, 15.460 m2 salgai. ☎ 76 63 27.

Pisua salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

Pisuak salgai Barrenkalean. ☎ 76 53 13.

Pisua salgai Soroluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

DENETARIK

Ume-kotxea eta aulkia salgai. ☎ 76 40 56.

Bi oheko logela berria salgai. ☎ 76 51 78.

Kerosenozko estufa salgai egoera eta prezio onean. ☎ 76 21 71 (Amaia).

Donostian (Egian) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 50 (Gurutze).

Donostian (Grosen) pisu bat osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 28 89.

Derbi FDS motorra saltzen dut. Egoera onean. ☎ 76 41 15 (Iñaki).

Bigarren eskuko botoiakordeia erosiko nuke. ☎ 76 11 96.

Taberna-erretogia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

Montesa Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Telebista txikia salgai, 14 pulgada ☎ 908 67 09 10.

2. eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

286 ordenagailua salgai, 40 mega. ☎ 76 58 81.

Siames katakumak salgai. ☎ 76 17 35.

Alemaniar artzain txakurrak (emeak) saltzen ditut. ☎ 76 53 35/76 32 14.

Ford Orion kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 32 91.

LANA

Aleman irakaslea behar da. ☎ 76 27 59.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Frantses klaseak. ☎ 76 27 16 (Estephanie).

Zientzietan lizentziatuak, OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 11 (Rosa).

Euskara klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 15 76.

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Zaharrak zaintzen ditut gauz. ☎ 76 11 11.

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke ☎ 76 20 88.

Neska euskaldun batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 64 60.

Neska batek garbiketak egingo lituzke (orduka). ☎ 76 27 68 (Pili).

Klinika auxiliar batek gaxoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.


Pertsona euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko, 8etatik 3etara. ☎ 76 04 25.

margo erakusketa

oskar barrera

Nahikari Taberna

Masterreka 20 / 76 57 71



LAGUNDU MESEDEZ!
Kottau hauek konortea galdu dute
eta ez dakite zertan ari diren...
Cris, ultimatuma martxoaren 1ean.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro. 9-Telefono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

San Martin Agirrerri buruzko erakusketa Udaletxean

Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleen elkarteak, bere 25. urteurrenean, San Martini eskeinitako erakusketa antolatu nahi izan du santuaren martirioaren 400. urteurrena ospatzen den honetan.

Erakusketa Bergarako Udaletxeko Pleno aretoan izango da ikusgai bihar zapatutik aurrerik domekara arte, otsailak 9. Herriko bildumazaleek San Martinekin zerikusia duen material piloa bildu dute azken asteetan. Horrela, besteak beste, San Martinen eskulturak, koadroak,

berari buruz idatzitako hainbat liburu, seilu erlijiosoak, txanponak edo 1887an, martirioaren 3. mendeurrenaren ospatu zireneko ekitaldiei buruzko xehetasunak ikus daitezke erakusketan. Era berean, Zabaleta Txiki baserria zegoen tokian dagoen gurutzetako bat eta Zurruga gainean San Martinen omenez 62an inauguratutako oroitarriaren erreproduzioak eta planoak.

Urrezko eztaiak

Seilu eta Diru Bildumazaleen elkarteak, esan

bezala, bere sorreraren zilarrezko eztaiak ospatzen ditu aurten. Gaur egun 80 lagun inguru dira elkartearen, nahiz eta San Martinen inguruko erakusketan jende gutxiagok hartzen duen parte. Urtero erakusketa monografiko bat antolatzeko asmoa daukate eta oraingoan, fetxa hain berezia izanik, San Martini tokatu zaio. Iaz, azaroan, Justo Garate bergarar ospetsua omen du zuten bildumazaleek. San Martini eskeinitakoa elkarteak antolatzen duen 26. erakusketa da eta hainbat herritarrek emandako laguntza ezinbesteko

koa izan da erakusketa prestatzerakoan.

Zigilu berezia

Erakusketan, bildumazale guztiek, San Martini buruz ateratako zigilu berezia jaso ahal izango dute. Interesatuak otsailaren 1ean, 2an edo 3an hurbildu beharko dira Udaletxera, orduan izango baita Correotako langile bat San Martinen zigilu bereziarekin. Erakusketa astelehenetik ostiralera 6etatik 9etara izango da zabalik eta astebukaeran, berriaz, 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.



Erakusketan ikus daitekeen argazkia 1912koa da eta Zabaleta txiki, San Martinen jaiolekua izan zen baserria zegoen tokian aterata dago, gurutzea ipini baitzen bertan. Gurutzean irakur daiteke: "Agirretar Martin Deuna ementxe bertan zeguan etxian jaio zan. Agorillaren-11-1567".

1	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A Ze FLAXA ETXAGI	33	11	60	14
2.	ERROTAGAIN	26	11	51	22
3.	JAUJA OH ZEREZOS	21	11	40	31
4.	BAR CANALEJAS	20	10	36	26
5.	BILDURBAREK OPEL/LAM	15	12	38	44
6.	MONGATXURRA	13	9	32	31
7.	AZPEITXI JATETXEA	13	11	36	37
8.	ORTZI	12	11	25	39
9.	OGIZUN	10	11	29	48
10.	ARLOTEAK/OILAGORRA	10	10	46	31
11.	PAGOMENDI	9	11	25	42
12.	UFALA	8	11	30	41
13.	MADURA INDUSTRIAS GOI	4	11	20	56

2	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	KAYAK OS JARDINEIROS	23	12	49	31
2.	ETXAGI	23	12	44	42
3.	UVE BIKOITZA JAM	22	11	33	35
4.	ARTUSAMAK BERGATRANS	21	11	47	34
5.	EZINLEIKE	18	12	35	47
6.	SOROPOTROAK	17	11	46	22
7.	AGIRREBEÑA JATETXEA	15	11	30	32
8.	HALTZARI	15	11	37	27
9.	LA JUVE	14	11	33	33
10.	AGIÑASPI	11	11	28	45
11.	INDARGORRI	10	11	13	23
12.	ERI	10	11	33	33
13.	AUTOBEREZI	7	11	32	39

3	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	GUADALEST	27	11	36	19
2.	FAC	23	11	42	23
3.	NEKROFIKOS	21	11	45	37
4.	PJS	20	11	34	25
5.	NAHIKARI HOOLIGANS	19	11	29	38
6.	TXIPIRON	18	11	32	24
7.	JAKINA PATXARAN TEAM	16	11	46	33
8.	EH BITERRAK	14	11	29	35
9.	IGANDEKOAK	14	11	20	28
10.	MOSKIS	12	11	35	18
11.	MRW	10	11	28	42
12.	GANBARA	7	11	22	44
13.	CONSTRUCCIONES BERGARA	4	11	22	43

4	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITU	36	12	90	15
2.	ARBE KIROLAK	31	12	70	27
3.	ETENGABE	25	12	38	23
4.	MATXAKATEGI	23	12	36	22
5.	OSINTXU	22	12	46	20
6.	XURRUPAK	21	12	28	36
7.	SLO	19	12	46	48
8.	KOMANDO PIPERRAK	13	12	38	56
9.	AMILOTX	10	12	22	43
10.	PANORAMIX	10	12	38	42
11.	PATA NEGRA	9	12	28	63
12.	ALDOKA MALDOKA	5	12	26	46
13.	POLIDEPORTIVO TABERNA	4	12	19	67
14.	PITIXAK	0	0	0	0

Jokoz kanpo



Igor Agirrezabal
PAGOMENDI

ZER MODUZ TXAPELKETA?

Gaizki hasi ginen, baina behintzat orain promoziotik irten gara. Extremaduraren antzera azkenaldian partidua irabazten ari gara.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena aintxintxika asko egiten dugula eta txarrena "desmadratu" egiten garena.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, protestatziagatik
PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?
Arratsalde, goizetan lotan hobeto egoten gara.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

A Ze Flaxa.

JOKALARIRIK ONENA?

Aitor Anton.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

Ez nago ziur, baina uste dut 18 Kakaindoki sartu genizkiola.

ETA JASOTAKOAZ?

10 bat sartu dizkigute, baina ez dakit ze taldek.

ZE POSTUTAN ESPERO DUZUE AMAITZEA?

Promozioko bi postuetan izan ezik, edozeinetan. Mantentzen bagara ondo legoke.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Agustín Aranzabal.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

EUSKAL HERRIKOAZ?

Agustín Aranzabal.

JATEKO PLATER BAT?

Makarroiak.

EMAITZAK

AMILOTX-SLO	2-8
POLIDEPORTIVO TABERNA-MANITU	2-6
HALTZARI-AUTOBEREZI	6-1
OSINTXU-ARBE KIROLAK	0-3
ETXAGI-AGIÑAZPI	4-2
EZINLEIKE-KAYAK OS JARDINEIROS	1-2
NEKROFIKOS-MRW	4-6
A Ze FLAXA ETXAGI-AZPEITXI JATETXEA	7-1
ORTZI-ARLOTEAK/OILAGORRA	1-9
MADURA INDUSTRIAS GOI-PAGOMENDI	1-3
ERROTAGAIN-BAR CANALEJAS	3-3
OGIZUN-BILDURBAREK OPEL/LAM	2-4
SOROPOTROAK-EZINLEIKE	21-0
INDARGORRI-UVE BIKOITZA JAM	1-3
ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS	5-5
ARTUSAMAK-AGIRREBEÑA JATETXEA	2-4
XURRUPAK-ETENGABE	0-5
TXIPIRON-GUADALEST	1-3
ERI-LA JUVE	4-6
GANBARA-CONSTRUCCIONES BERGARA	5-4
FAC-EH BITERRAK	6-0
MOSKIS-PJS	3-1
POLIDEPORTIVO TABERNA-PANORAMIX	3-8
PATA NEGRA-KOMANDO PIPERRAK	5-8
ALDOKA MALDOKA-MANITU	1-4

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00:	LA JUVE-AGIRREBEÑA JATETXEA • PJS
10:00:	PJS-MRW • SOROPOTROAK
11:00:	SOROPOTROAK-INDARGORRI • MRW
19:00:	ERI-AGIÑAZPI • MONGATXURRA
20:00:	MONGATXURRA-BAR CANALEJAS • AGIÑAZPI

Domekan barruan

09:00:	TXIPIRON-NAHIKARI HOOLIGANS • NEKROFIKOS
10:00:	NEKROFIKOS-EH BITERRAK • IGANDEKOAK
11:00:	IGANDEKOAK-GANBARA • EH BITERRAK
19:00:	FAC-CONSTRUCCIONES BERGARA • GUADALEST
20:00:	MOSKIS-GUADALEST • FAC

Domekan kanpoan

09:00:	HALTZARI-UVE BIKOITZA JAM • MADURA
10:00:	MADURA-JAUJA OH ZEREZOS • ORTZI
11:00:	OGIZUN-ORTZI • JAUJA OH ZEREZOS
16:00:	UFALA-ARLOTEAK/OILAGORRA • AZPEITXI JATETXEA
17:00:	AZPEITXI JATETXEA-PAGOMENDI • ERROTAGAIN
18:00:	ERROTAGAIN-MONGATXURRA • PAGOMENDI

OHARRAK

ANTOLAKETA BATZORDEAK UFALA ETA BILDURBAREK OPEL/LAM TALDEEI 3 PUNTU KENDU DIZKIE ARBITRATZERA EZ JOATEGATIK.

ESKOLA KIROLA

11:00:	LOS TXISTIS-MP
11:00:	BLUE STAR-PWA
12:00:	IPINTZA INSTITUTUA-MARIAREN LAGUNDIA
12:00:	MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA-VALTER

PARTIDU GUZTIAK
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN JOKATUKO DIRA ZAPATUAN.

1996ko kirol sariak banatu dira

Agustin Aranzabal, Jesus Jauregi eta Igeri Elkarteak sarituak

Agustin Aranzabalek irabazi du aurten Bergarako goi mailako kirolari onenaren saria. Berrigarak eta Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatzen duten sariketan, aurten 25 urte bete dituen Bergara Igeri Elkarteak eraman du 96ko kirol elkartetik onenaren saria, horrela erabaki dutelako herriko berriemateek. Jesus Jauregik, ostera, sari berezia jaso du, urte askotan herriko igeri taldean egindako lanagatik. Berrigarako irakurleek emandako botuek, Aranzabal aukeratu dute goi mailako kirolaririk onena. Realeko jokariak 98 boto jaso ditu; Jose Mari Zezeaga pilotariak, 68 boto eta Aitor Zabaleta pilotuak, 41 boto.

Herriko elkarteetan dabilzan kirolari onenen zerrenda, ostera, behealdean duzue.



Agustin Aranzabalek goi mailako kirolaririk onenarena eta Jesus Jauregik sari berezia jaso zuten.

Sari banaketaren ekitaldia asteartean izan zen Kultur Etxean eta bertan Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Zabaleta zinegotzia eta Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko teknikaria izan ziren sariak banatzen. Kirolariek Pili Arinek egindako eskultura bana jaso zuten

eta Bergara Igeri Elkarteak kirol materialean gastatzeko 50.000 pezeta. Alkatea hitz hauekin zuzendu zitzaizen Errotalde Jauregian bildutako kirolariei: *“urtean zehar egin duzuen lana azpimarratzekoa da. Kirol merituaz gain, Bergararen izena Euskal Herri mailan eze-*

zik Europa mailan ere zabaldu duzuelako”.

Bestalde, Berrigarara bidalitako botoen artean egindako zozketan Iban Lazkanok Sirimiri jatetxean bi pertsonarentzako afaria irabazi du eta Mari Asun Berrio-Otxoari Kirol Zerbitzuko karneta urte osorako egokitu zaio.



FERNANDO OREGI
BKEKO FUTBOL SAILA



ANIOTZ GABILONDO
BKEKO SASKIBALOI SAILA



JABI BURGOS
LAGUNAK FUTBITO TALDEA




JAIONE IGARTUA
ARIZNOA



ENERITZ MUGURUZA
BERGARA IGERI ELKARTEA



UNAI GARMENDIA
GOJU-RIU KARATE TALDEA



JON UNAMUNO
LOKATZA ZIKLISMO TALDEA



AGUSTIN TOLEDO
ASPACEKO BOCCIA TALDEA




ANDRES DIEZ
XAKE TALDEA



KARLOS ALDAI
ZALEAK



GORKA MARTIN
BKEKO PILOTA SAILA



AITOR DELARRIVERETTE
POL-POL



GAIZKA CALVO
BADMINTON ELKARTEA



AROA AGIRREZABAL
BETI BUSTI

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Ilintxa**

Preferente maila.

Domeka. 16:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Añorga**

Ohorezko mailako jubenilak.

Zapatua. 16:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Beraun Don Bosco**

2. mailako kadeteak.

Domeka. 11:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Urretxu Zumarraga**

Neskak.

Domeka. 10:00. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Egia (Donostia)**

Jubenil mutilak.

Domeka. 12:15. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Urola (Zumarraga)**

Kadete mutilak.

Zapatua. 18:00. Kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Goierri**

Senior mutilak.

Zapatua. 16:15.

Kiroldegia.

◆ **BKE Ganbara-CD Internac.**

Kadete neskek.

Zapatua. 12:15.

Kiroldegia.

KARATEA

◆ **Karate Ikuskizuna**

Domeka. 17:00. Kiroldegia.

Jose Mari Zezeaga

Binakako txapelaren bila

Jose Mari Zezeagak, Eugirekin batera, binakako Estatuko pilota txapelketaren finala 3. aldiz jokatu du. Aurrean Lasa eta Retegi izango dira, baina azkenengo partiduetako mailari ertsiz irabazteko aukera handiak dituzte.

- Txapelketa erdiz-purdi hasi zenuten, baina bukaera aldera asko hobetu duzue?

- Bai, baina lehenengo partidutan oso bikote zailak izan genituen eta azken aldera errezagoak. Ez da izan azkenaldera joko hobea hartu dugula.

- Finalean Retegi eta Lasa...

- Guretako oso bikote zaila izango da. Atzean apurtzea oso zaila da eta aurrean Retegiri tantua egitea ere nekeza da. Horretarako airez jokatu behar da, baina Patxik ez du horrela jokatzen eta partiduan zehar ikusiko dugu nola jokatu.

- Konforme Anoetan jokatzearekin?

- Bai, Anoetan partidu gutxi jokatzen ditugu eta frontoi oso ona da.

- Finaleko arerioengandik zerk ematen dizu beldur gehien?

- Norberak bere jokia ez egiteak ematen dit beldur gehien. Joan hara eta jokatzeko etxera etortzea, horrek ematen dit beldur gehien. Gure jokia egiten badugu, uste dut badiogula irabazteko aukerak.

- Igandekoa jokatzen duzun 3. finala izango da.

- Etxanizekin irabazi nuena kontatzen badugu 4.ena izango da. Titulo ofizial bat irabazteak ilusio handia egiten dit, baina garrantzitsuena urte askotan hor goian ibiltzea da. Txapela lortzea garrantzitsuena da, baina egun bateko gauza da hori.

- Ustekaberik izan al da txapelketan?

- Hasieran Retegi-Lasa eta Salaberria-Beloki ziren bikote faboritoak. Salaberriak eta Belokik huts egin dute eta euren ordezu sartu gara. Bestela, ez da ezustekorik egon.

- Eugirekin Adarra-gan gertatu zenari buruz, ze iritzi daukazu?

- Eugirentzat oso zaila izan zen, jendea asko sartu zen berarekin eta ez zioten gustora jokatzen laga. Gertatu zena ez da polita, baina bestalde Logroño pilotalekua toperaino zegoen eta pilotarentzat oso ona da hori.

- Momentu horietan ze komentatu zenuen Eugirekin?

- Jendeari kasurik ez egiteko eta partiduan sartu zedin saiatu nintzen. Presio handia izan genuen eta gogorra izan zen.

- Finalerako pronostikoa?

- Behin finalean egoenez gero, irabaztea gustatuko litzaidake.



"Norberak bere jokia ez egiteak ematen dit beldur gehien"

"Txapela lortzea garrantzitsuena da, baina egun bateko gauza da"

San Martinen omenez

1928. urtean Mateo Mujika apezpi-kuak San Martin Agirrerren omenezko prozesioa debekatu egin zuen, Beasainen eta Bergararen arteko lehia zela eta, Bergaran San Martinen omenezko prozesiorik egiterik ez zegoela esanez. Herritarrek, ordea, ez zioten kasurik egin eta prozesioa egin zen, nahiz eta goiko argazkian ikus daitekeenez, prozesioan apaizik ez ageri.

Honako hauek dira **goiko argazkian** agertzen direnetako batzuk:

Antonio Iturbe, San Martinen irudia eusten, ezker aldean agertzen dena; Pedro Zabala, kandela eskuan duena, Nikolas Larrañaga, bere alboan dagoena, Jose Antonio Zabala (demokrazia garaian Bergarako lehenengo alkatea izan zena), argazkian marinel jantzita agertzen den haurra; Ignacio Murua eskumaldean aurrean dagoena, Telesforo Monzon, honen atzean, eta Agustin Aranzabal, Telesfororen atzean.

Beheko argazkia, berriz, 1950. urteko irailaren 17an, San Martin jaietan, Bergarako Orfeoia eta Bilboko Udala Orkestra Sinfonikoak Frontoian emandako kontzertuko da. Argazkian Don Roman Oyarzabal, orduko Orfeoiko zuzendaria agertzen da eskumaldean, eta erdian, Refice maisua, Bilboko orkestraiko zuzendaria. Apaiza Aita Galdos da.



Argazkia: Txaro Zabala



Argazkia: Garrido

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08




San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA


ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



Antonio Alberdi Iriondo

1997ko urtarrilaren 25ean zendu zen Osintxun.

Jardun eta Berrigarako Eba Alberdiren lankideak.



SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerrika, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA



Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

losu eta Karmentxu



Zubiaurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR



Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargarai, 7 ☎ 76 00 45

BERGARAKO

FAGOR altzarien banatzaile

BAKARRA

JAKINA



San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behea Tlf.: 76 03 30



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR

Sukaldeko altzariak

